



**anjel kalera!**

**HERRI EKIMENA**

## **Anjel Figueroa preso politikoa OSASUN EGOERA LARRIAN!**

Anjel Figueroa (Algorta) 13 urte darama espetxean. Gaixotasun larria eta sendaezina du: epilepsia temporal eta eskuinaldeko esklerosi mesiala. Horren ondorioz krisialdi epileptiko larriak izaten ditu, krisialdi horietan konortea galtzen du, eta partean absentiak, memoria galerak eta haluzinazioak ere izaten ditu.

Anjelen egoera gero eta okerragoa da. Gero eta krisialdi eta arazo ugariagoak ditu. Hala ere, administrazioak ukatu egin dio Kode Penalaren 92. artikulua aplikazioa, hau da, ukatu egin dio gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak baldintzapeko askatasunean kaleratzea aurreikusten duen legearen aplikazioa.

Preso guztiei dagokie osasun eskubidea, baita euskal preso politikoei ere. Gaur arte bost euskal preso politiko hil dira kartzelan hainbat gaixotasunen ondorioz eta beste zazpi hil dira gaixorik kaleratu ondoren. Anjelek bezala gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten beste hamabi euskal preso politiko daude. Horiei ere, 92. artikulua aplikatu behar zaie. Urrian atxilotu zituzten Josu Rodriguez (Berango) eta Txomin Gezuraga (Algorta) gazteek ere gaixotasun larriak dituzte, eta osasun eskubidea zor zaie.

**ANJEL KALERA!** herri ekimeneko partaideak Getxoko herritarrak gara. Anjelen egoera larriak bildu gaitu. Anjel kalean eta bizirik nahi dugu. Gure bitartekoak urriak dira. Baina dinamika ireki eta partehartzaileak bideratu nahi ditugu, zeregin honetan bakoitzak bere lekutik eta alorretik bere ekarpena egin dezan: inork ez dezala esan ez duela ezagutzen zer gertatzen ari den. Herritarren sinadura bilketa egin; herritar, talde, elkarte, sindikatu, alderdi eta gainerako taldeen atxikimenduak bildu eta; mobilizazioak, agerraldiak eta ekitaldiak antolatuko ditugu. Herri dinamika piztu nahi dugu, berandu izan baino lehen Anjel gure artean kalean izateko.

[anjelkalera@euskalerrria.org](mailto:anjelkalera@euskalerrria.org)



**anjel kalera!**

**HERRI EKIMENA**

## **El preso político Anjel Figueroa ¡EN SITUACIÓN CRÍTICA!**

Anjel Figueroa (Algorta) lleva 13 años en prisión y sufre una epilepsia del lóbulo temporal y esclerosis mesial del lado derecho. Se trata de una enfermedad grave e incurable, que le produce ataques convulsivos con pérdida de conocimiento, continuas ausencias, pérdida de memoria reciente y alucinaciones.

Debido al agravamiento de su enfermedad, actualmente sufre crisis constantes que se han ido multiplicando en los últimos meses. Sin embargo, la Administración ha denegado la aplicación del artículo 92 del Código Penal, que prevee la puesta en libertad de los presos en situaciones graves e incurables.

A todo preso le asiste el derecho a la salud, también a los presos políticos vascos. Hasta la fecha cinco presos políticos vascos han fallecido en prisión y otros siete han fallecido tras ser puestos en libertad, por los mismos motivos. En la actualidad, además de Anjel, hay otros doce presos políticos vascos con enfermedades graves e incurables. Como también están gravemente enfermos Josu Rodríguez (Berango) y Txomin Gezuraga (Algorta), detenidos en octubre. A todos ellos se les debe aplicar el artículo 92, les deben el derecho a la salud.

La iniciativa popular ANJEL KALERA! está formada por ciudadanos de Getxo, a los que nos ha unido la grave situación de Anjel. Lo queremos en la calle y con vida. Nuestros recursos son escasos, pero pretendemos encauzar dinámicas abiertas y participativas, para que cada uno pueda aportar lo buenamente posible, desde cualquier lugar y condición: que nadie pueda decir que no sabe lo que está ocurriendo. Pondremos en marcha una campaña de recogida de firmas; solicitaremos la adhesión a ciudadanos, grupos, asociaciones, sindicatos, partidos políticos... En definitiva, promover una dinámica popular, para conseguir traer a Anjel a nuestro lado, antes de que sea demasiado tarde.

[anjelkalera@euskalerrria.org](mailto:anjelkalera@euskalerrria.org)